



Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 26a.

Vitoria-Gasteiz a 26 de junio de 2014.

BILDU DIRA

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi Iñigo Ansola Kareaga jn. eta Consorcio de Aguas de Rioja Alavesa-Arabako Errioxako Urkidetzako presidente Juan José García Berrueco jn.

REUNIDOS

El Sr. D. Iñigo Ansola Kareaga, Director General de la Agencia Vasca del Agua y el Sr. D. Juan José García Berrueco, Presidente del Consorcio de Aguas de Rioja Alavesa-Arabako Errioxako Urkidetza.

ESKU HARTU DUTE

Lehenak, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari den aldetik eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikuluak ematen dizkion eskumenak betez.

INTERVIENEN

El primero de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de los Estatutos.

Bigarrenak, Partzueloaren Estatutuetako 20.1.c) artikuluak erakundea ordezkatzeko ematen dion legezko gaitasuna betez.

El segundo, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Consorcio que le confiere el artículo 20.1.c) de sus Estatutos.

Bi aldeek LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko beharrezko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri eta, horretarako


Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto

HONAKOA AZALTZEN DUTE

LEHENNGOA.- Euskal Autonomía Estatutuaren 10. artikuluko 11. eta 33. idatz-zatien arabera, Euskal Autonomía

EXPONEN

PRIMERO.- Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco,



Erkidegoari dagokio, bere lurralte eremuaren barruan, aprobetxamendu hidraulikoen gaineko eskumen esklusiboa, baldin eta ibaiet ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidego barruan egiten badute, bai eta Estatuak legez interes orokorrekoztat jo ez dituen eta beste autonomia erkidego batzuei eragiten ez dieten obra publikoen gainekoak ere.


Uztailaren 12ko 297/1994 Dekretuaren bidez - Estatu Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari baliabide eta ustiakuntza hidraulikoen arloko funtziak eskualdatzeari buruzko Eskualdatzeen Batzorde Mistoaren Erabakia onartu zuena - Estatuari zegozkion funtziak eta bitartekoak EA Era eskualdatu ziren, bestek beste, toki-korporazioei laguntha emateko Autonomia Erkidegoaren lurraldean egiten diren obra hidraulikoak gauzatzeko, betiere, jarduketa horiek EA Eko Administrazioak interesarri jotzen dituenean, horiek egiteak beste autonomia erkidego bati eragiten ez dionean eta legez Estatuaren interes orokorrekoztat jotzen ez direnean.

IGARRENA.- Ekainaren 26ko 1/2006 Legeak Uraren Euskal Agentzia sortu zuen, ingurumen-gaietako eskumena duen sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, eta lege horren

corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurren íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas.

Por Decreto 297/1994, de 12 de julio, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias sobre traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de recursos y aprovechamientos hidráulicos, se transfirieron las funciones y medios correspondientes, entre otros, al otorgamiento de auxilios a corporaciones locales para la ejecución de obras hidráulicas que se realicen en el territorio de la Comunidad Autónoma, cuando tales actuaciones sean de su interés, su realización no afecte a otra Comunidad Autónoma y no tengan la calificación legal de interés general del Estado.

SEGUNDO.- Que por Ley 1/2006, de 26 de junio, se creó la Agencia Vasca del Agua, como ente público de Derecho Privado adscrito al Departamento competente en materia



arabera, Euskadin uraren inguruko politika gauzatzea du xede agentzia horrek. Horri dagokio, bestek beste, Estatuko Administrazioak transferitu, eskuordetzan eman edo Agentziaren esku utzitako funtzioak gauzatzea.

HIRUGARRENA.- Arabako Errioxako Urkidetza, haren estatutuen 6. artikuluak dioenez, urak eta saneamendua (uraren ziklo osoa) hornitzeko azpiegitura ezarri eta ustiatzeko sortu zen.

LAUGARRENA.- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak urteak daramatza Urkidetza horren esparru barne diruz laguntzen, horridura eta saneamenduko obrak egiterakoan.

BOSGARRENA.- 2013ko irailaren 30ean Erakunde arteko Hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek, ekonomia suspertzeko eta inbertsio-proiektuak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoak duen defizit-tarte berria batera erabiliz.

de medio ambiente, cuyo objeto es llevar a cabo la política del agua en Euskadi y al que le corresponde, entre otras funciones, el ejercicio de aquellas transferidas, delegadas o encomendadas por la Administración estatal.

TERCERO.- Que el Consorcio de Rioja Alavesa se crea para el establecimiento y la explotación de la infraestructura del abastecimiento de agua y saneamiento (Ciclo Integral del Agua), según figura en el artículo 6 de sus Estatutos.

CUARTO.- Que la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi viene colaborando económicamente desde hace años en la ejecución de obras de abastecimiento y saneamiento que se llevan a cabo dentro del ámbito de dicho Consorcio.

QUINTO.- Que el 30 de septiembre de 2013 se suscribió el Acuerdo Interinstitucional entre el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales para el desarrollo de actuaciones de reactivación económica y de proyectos de inversión con cargo a la utilización compartida del nuevo margen de déficit de la Comunidad Autónoma de Euskadi.



SEIGARRENA.- Erakunde arteko hitzarmen honi jarraiki finantzatu beharreko jarduera eta proiektuen barruan (eranskinean zehaztu dira), Arabako Lurralde Historikoari dagozkionen aranean, BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA EURO (250.000 €) jarri behar ditu Eusko Jaurlaritzak, obra hidraulikoak/urezlatzeak finantzatzeko.


ZAZPIGARRENA.- Ido horretatik, Arabako Errioxako Urkidetzak hobetzeko lanak egin ditu aurten Partzergoko hornikuntza eta saneamenduko instalazioetan; horretarako, Uraren Euskal Agentziari eskatu dio lan horiek finantzatzen laguntzeko.

ZORTZIGARRENA.- Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Uraren Euskal Agentziaren bidez, eta Arabako Errioxako Urkidetzak LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzea erabaki dute, jarraian adierazitako jarduerak egite aldera. Hona hemen hitzarmenaren

SEXTO.- Que dentro de las actuaciones y proyectos a financiar en virtud de este Acuerdo Interinstitucional, que se detallan en Anexo al mismo, entre las correspondientes al Territorio Histórico de Alava se incluye la cantidad de DOSCIENTOS CINCUENTA MIL EUROS (250.000 €) a aportar por el Gobierno Vasco para financiar Infraestructuras hidráulicas/regadíos.

SÉPTIMO.- Que, en este sentido, el Consorcio de Aguas de Rioja Alavesa ha realizado durante este año obras de mejora en las instalaciones de abastecimiento y saneamiento del Consorcio, para cuya financiación ha solicitado la colaboración de la Agencia Vasca del Agua.

OCTAVO.- Que, por todo lo expuesto, la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a través de la Agencia Vasca del Agua, y el Consorcio de Aguas de Rioja Alavesa proceden a la formalización del presente CONVENIO DE COLABORACIÓN para las actuaciones que se indican, con arreglo a las siguientes



KLAUSULAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUA.

Hitzarmen honen helburua da, hitzarmen honen bigarren klausulan jasotako obrak gauzatzean lankidetzan aritzeko Uraren Euskal Agentziak eta Arabako Errioxako Urkidetzak hartutako konpromisoaren baldintzak arautzea.

CLÁUSULAS

PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO

El presente convenio tiene por objeto regular las condiciones en las que la Agencia Vasca del Agua y el Consorcio de Aguas de Rioja Alavesa se comprometen a colaborar en la financiación de las obras recogidas en la cláusula segunda del presente convenio.

BIGARRENA.- GAUZATU BEHARREKO JARDUKETAK.


Finantziatu beharreko jarduerak, ondorengo klausuletan ezarrita bezala bete beharrekoak, honako hauek dira:

- "Bilarreko lohiak lehortzeko guneko inbertsioa. I. fasea: Arabako Errioxako araztegietan sortzen diren lokatzak biltzeko lauza bat eraikitzea Bilarren (Araban). Zenbatekoa: 16.467,99 euro (BEZik gabe).
- "Bilarreko lohiak lehortzeko guneko estalkiko inbertsioa. II. fasea: estalki autosostengatzaile kurbatua instalatzea Bilarreko udalerrian lohiak lehortzeko dagoen gunean, eta erretenak jartzea

SEGUNDA.- ACTUACIONES A EJECUTAR.

Las actuaciones a financiar, en los términos establecidos en las cláusulas siguientes, son:

- "Inversión Área de secado lodos Elvillar. Fase I", que consisten fundamentalmente en la construcción en Elvillar (Álava) de losa de almacenamiento de fangos generados en las EDARES de Rioja Alavesa, con un importe, IVA EXCLUIDO, de 16.467,99 euros.
- "Inversión Cubierta en Área de secado de lodos Elvillar. Fase II", que consisten fundamentalmente en la instalación de una cubierta curva autoportante, instalación de canalones en cubierta y



estalkian eta PVCzko zorretenetan. Zenbatekoa: 68.663,58 euro (BEZik gabe).

- "Moredako biltegian - Alta-sarean hobekuntza-lanak egiteko inbertsioa. I. fasea: instalazioko sarrera egokitzea; horretarako, haren barnealdea eta kanpoko aldea indartuko dira. Zenbatekoa: 2.759,50 (BEZik gabe).

- "Moredako biltegian - Alta-sarean hobekuntza-lanak egiteko inbertsioa. II. fasea: biltegiko barnealdea garbitzea, erretxinaztaztea, eta morteroa aplikatzea. zenbatekoa: 3.780,00 euro (BEZik gabe).

- "Alta-sarea hobetzeko inbertsioa Lezako biltegia hornitzeko: Lezako udalerriko hornitze-hodia eta iturriak luzatzea. Zenbatekoa: 2.500,00 euro (BEZik gabe).

bajante de PVC de pluviales en el área de secado de lodos de la localidad de Elvillar, con un importe, IVA EXCLUIDO, de 68.663,58 euros.

- "Inversión en mejoras en red en Alta – Depósito de Moreda. Fase I" consistente en acondicionamiento de entrada a la instalación, reforzamiento interior y exterior del mismo, con un importe, IVA EXCLUIDO, de 2.759,50 euros.

- "Inversión en mejoras en red en Alta – Depósito de Moreda. Fase II" consistente en limpiado, resinado y aplicación de mortero del interio del depósito, con un importe, IVA EXCLUIDO, de 3.780,00 euros.


- "Inversión en mejoras en red en Alta relativas al abastecimiento del Depósito de Leza" consistente en la prolongación de la tubería de abastecimiento y fuentes en el término municipal de Leza, con un importe, IVA EXCLUIDO, de 2.500,00 euros.

HIRUGARRENA.- URAREN EUSKAL AGENTZIAK BIDERATUKO DUEN LAGUNTZA.

Uraren Euskal Agentziak erreferentziazkobrak kontratazzearen kostu zehatza finantzatzen laguntzeko konpromisoa hartzen du, baina gehienez ere

TERCERA.- AUXILIO A PRESTAR POR LA AGENCIA VASCA DEL AGUA.

La Agencia Vasca del Agua se compromete a participar en la financiación del coste efectivo de la contratación de las obras de referencia



aurreikusitako gehienezko zenbatekora artea, hau da, LAUROGEITA HAMALAU MILA EURO (94.000 €), BEZA kanpo. Zenbateko hau 2014. urterako kreditu bati dagokio, eta Agentziaren aurrekontuarekin finantzatuko da. Honetatik HIRUROGEITA HAMAR MILA € (70.000 €) Foru Aldien eta Eusko Jaurlaritzaren erakunde arteko hitzarmenetik datoza ("azaldu"etako 5. puntu).

2.- Partzuergoari Agentziak konprometitutako zenbatekoa, seigarren 2 klausulan xedatutakoaren arabera ordainduko da.

LAUGARRENA.- ARABAKO ERRIOKAKO URKIDETZA AREN BETEBEHARRAK.

Arabako Errioxako Urkidetzak honako betebeharrak izango ditu:

a) Bigarren klausulan jasotako obrei dagokien eraikuntza-proiektuak indarrean dagoen legeriaren arabera, hala badagokio, bere gain hartzea, behar bezala ikuskatzea eta onartzea; proiektuak behin betiko onartu baino lehen, jendaurrean jarri beharko dira, gutxienez ere, hamabost eguneko epean.

hasta un importe máximo de NOVENTA Y CUATRO MIL EUROS (94.000 €), IVA excluido, que corresponden a un crédito de pago para 2014 del mismo importe que se financiarán con cargo al presupuesto de la Agencia, de los que SETENTA MIL EUROS (70.000 €) proceden del Acuerdo Interinstitucional entre el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales (exponendo quinto).

2.- El abono efectivo al Consorcio del importe comprometido por la Agencia se realizará conforme a lo dispuesto en la cláusula sexta 2.


CUARTA.- OBLIGACIONES DEL CONSORCIO DE AGUAS DE RIOJA ALAVESA.

El Consorcio de Aguas de Rioja Alavesa se obliga a:

a) Aportar, cuando ello resulte necesario, a su cargo el proyecto constructivo correspondientes a las obras recogidas en la cláusula segunda, conforme a la legislación vigente, supervisarlo debidamente y aprobarlo; con anterioridad a la aprobación definitiva, el proyecto deberá ser sometido a información pública por un plazo no inferior a quince días.



- b) Bigarren klausulan adierazitako obrak egiteko behar diren lurak aldi baterako nahiz behin betiko eskuratzea, bere kargura.
- c) Obrak kontratatu ahal izateko beharrezko lizenziak eta baimenak - beharrezkoak izatekotan, hidraulikoak barne- eskuratzea eta aldez aurreko gainerako izapide guztiak egitea.
- d) Obrak gauzatzeko prozesua kontratatzea, zuzentzea eta teknikoki ikuskatzea.
- e) Proiektyuetan barne hartu ez diren zerbitzuak berriz jartzea.
- f) Partzuergoak, obrak egiteko beharrezko den finantziaziaren gainerako zenbateko guztiak jarri beharko ditu. Obra horiek egiteko aurreikusten den zenbatekoa 171,07 €.
- g) Era berean, Partzuergoak dagozkion zergen zenbatekoa likidatu eta ordainduko ditu, bereziki, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, eta zerga horien gainean aplika daitezkeen kenketak gauzatuko ditu.
- b) Obtener, a su cargo, los terrenos precisos, temporal o definitivamente, para la ejecución de las obras.
- c) Obtener las licencias, autorizaciones –incluidas de ser necesario las hidráulicas– y los demás trámites administrativos previos y necesarios para la contratación de las obras.
- d) Contratar, dirigir e inspeccionar técnicamente la ejecución de las obras.
- e) Reponer a su cargo los servicios afectados no contemplados en el proyecto.
- f) El Consorcio aportará, el resto de financiación necesaria para la completa ejecución de las obras, con un importe estimado de 171,07 EUROS de la base imponible.
- g) Asimismo, el Consorcio liquidará y abonará los importes de los impuestos correspondientes, en particular el Impuesto sobre el Valor Añadido, y practicará las deducciones que sean de aplicación sobre dichos impuestos.



BOSGARRENA.-

KONTRATATU,

IKUSKATZEA.

OBRAK

ZUZENDU ETA

1.- Arabako Errioxako Urkidezta arduratuko da obrak kontratatu, zuzendu eta teknikoki ikuskatzeaz, eta eginkizun horiek ordenamendu juridikoak baimendutako edozein erakunderen bitartez kudeatu ahal izango ditu.

Agentziak dokumentazioa eta informazioa eskatu ahal izango du, eta egoki irizten dituen edozein motatako ikuskaritzak, kontrolak eta fiskalizazioak egin ahal izango ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak egindako ekarpenean egoki bideratu dela eta ekarpenean egiteko ezarritako baldintzak betetzen direla egiazatzeko.

2.- Obrak jaso ondoren, horiek jomuga duten zerbitzua emateko ustiatzen jartzeko betebeharra du Partzuergoak, bai eta horiek behar bezala zaintzekoa ere, eta horretarako beharrezkoak diren aurrekontu-aurreikuspenak egiteko eta beharrezkoak diren gainerako neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du.

QUINTA.-

DIRECCIÓN,

CONTRATACIÓN, INSPECCIÓN Y EXPLORACIÓN DE LAS OBRAS.

1.- Será responsable de la contratación, dirección e inspección técnica de la ejecución de las obras el Consorcio de Aguas de Rioja Alavesa, que podrá gestionar tales atribuciones a través de cualquiera de las formas autorizadas por el ordenamiento jurídico.

La Agencia podrá solicitar la documentación e información y efectuar las inspecciones, controles y fiscalizaciones de cualquier naturaleza que estime oportuno para la determinación del adecuado destino de la aportación de la Administración de la Comunidad Autónoma y de cumplimiento de las condiciones en que se otorga.

2.- Tras la recepción de las obras, el Consorcio se obliga a ponerlas en explotación para la prestación del servicio a que se destinan, y a conservarlas debidamente, comprometiéndose a realizar las previsiones presupuestarias y a adoptar las demás medidas precisas para tal fin.



SEIGARRENA.- ZERTARAKOA ETA ORDAINKETA.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren laguntzaren zenbatekoa bakar-bakarrik erabili ahal izango da gauzatze arruntaren ondoriozko kostua finantzatzeko. Ondorioz, kontratazio-organoari dagozkion kontratuko betebeharrik ez betetzeagatik sor litezkeen kopuruak ezingo dira ekarpentz horrekin ordaindu, eta horien artean, bestek bestetik, zuinketa gaizki egiteari, lur-eremuak erabiltzeko moduan ez egotearen ondoriozkoei edo ziurtapenak berandu ordaintzearen ondoriozkoei, zein finantzazio-kostu, lur-eremuak erosteko, proiektuak idazteko, obren zuzendaritza, ikuskaritza eta zaintza eta abarri dagozkienak.


2.- Ekarpenaren ordainketa, onartutako ziurtagiriak Agentziara igorri ondoren egingo da; Partzuergoari, urteko aurrekontuari dagokion ziurtagiri bakoitzaren proportzioa ordainduko zaio, kontratazioaren zenbatekoa agortu arte, hirugarren klausulan ezarritako muga handienarekin.

EKARPENEN

SEXTA.- DESTINO Y PAGO DEL AUXILIO.

1.- El importe del auxilio de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco sólo podrá destinarse a la financiación del coste derivado de la normal ejecución. En consecuencia, no serán abonables con cargo al mismo aquellas cantidades que pudieran devengarse del incumplimiento de las obligaciones contractuales que incumben al órgano de contratación, entre las que se refieren las ocasionadas por un incorrecto replanteo, las derivadas de la falta de disponibilidad de los terrenos o las derivadas del tardío pago de las certificaciones, entre otras, ni tampoco otros conceptos diferentes tales como costes financieros, de adquisición de terrenos, de redacción de proyectos, dirección, inspección y vigilancia de obras, etc.

2.- El pago de la aportación se realizará previo traslado a la Agencia de las certificaciones aprobadas por el Consorcio hasta agotar el importe de la contratación, con el límite máximo de aportación establecido en la cláusula tercera.



3.- Arabako Errioxako Urkidetzak ezin izango du inondik inora ere kontratistei egin beharreko obra-zuirtagiriaren ordainketa baldintzatu, Uraren Euskal Agentziari dagokion ekarpenaren aurretiko transferentzia dela eta; horrenbestez, Partzuergoak kontratistei, berandutzan erori ez daitezten, epe barruan ordaindu beharko die; behar den garaian ordaintzen ez badu, egotzi dakizkiodeen kalteen erantzule izango da.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA INTERPRETAZIOA.

1.- Hitzarmen hau administrazio arlokoa da, eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetza-hitzarmenei aplikatu beharreko administrazioko ordenamendu juridikoa bete beharko da; era berean, aldeen betebeharrei dagokienean, horiekin bat datozen xedapenean jasotakoa bete beharko da, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokoren kargurako dirulaguntzen esleipena arautzen duten arauak ere.


2.- Hitzarmenak edo hori betearazteak sortarazitako interpretazio-arazoak jarraipenerako batzordeak konpontzeko,

3.- En ningún caso el Consorcio de Aguas de Rioja Alavesa podrá condicionar el pago de certificaciones de obra a los contratistas a la transferencia previa de la aportación que corresponda a la Agencia Vasca del Agua, debiendo el Consorcio, por tanto, efectuar los pagos a los contratistas en los plazos adecuados para evitar la incursión en mora y siendo responsable, en caso de no hacerlo, de los perjuicios que puedan irrogarse.

SÉPTIMA.- RÉGIMEN E INTERPRETACIÓN DEL CONVENIO.

1.- El convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas; asimismo, en lo que atañe a las obligaciones de las partes, se estará a lo dispuesto en las normas reguladoras del otorgamiento de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y resto de normativa que resulte de aplicación.

2.- Para la resolución de los problemas de interpretación que pueda plantear el convenio o su ejecución, se estará a los



Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Procedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 8.3 artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

ZORTZIGARRENA.- JARDUNEN JARRAIPENERAKO BATZORDEA.

1.- Hitzarmen honen jarraipenerako batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau ordezkarik osatuko dute. Bi Uraren Euskal Agentziakoak izango dira eta beste bi Arabako Errioxako Urkidetzakoak. Hitzarmena sinatzen duen alde bakoitzak izendatuko ditu bere ordezkarriak, honako eginkizun hauetarako:

a) Hitzarmen honetan aurreikusitako obrak behar bezala burutzen ari direla egiaztazeko jarraipena egitea, eta, horretarako, bi erakundeek bata bestearen informazioa izan dezaten eta elkarrenganako konpromisoak behar bezala bete ditzaten irizpide eta moduak ezartzea.

b) Lan bakoitzerako behar diren izapideak agudo egiteko oztopoak kentzen saiatzea.

c) Hitzarmen honen gai diren jardunak

dispuesto en el artículo 8.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.


OCTAVA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DE LAS ACTUACIONES.

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente convenio compuesta por cuatro representantes, dos de la Agencia Vasca del Agua y otros dos del Consorcio de Aguas de Rioja Alavesa, que serán designados, respectivamente, por las partes firmantes del presente convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

c) Informar y proponer las medidas



burutuko direla bermatzeko behar diren txostenak egin eta neurriak proposatzea, batez ere, urtekoak egokitut beharreko kasuetan eta seigarren klausulan jasotakoetan.

d) Hitzarmenak ekar ditzakeen interpretatzeko eta burutzeko arazoei irtenbideak ematen saiatzea.

2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean eta edozein aldetako ordezkariak hala eskatzen badu, batzordea jardunak ondo joan daitezen behar den guztietan elkartuko da. Bilkura egiteko kide guztiak bertan egon beharko dute eta erabakiak ere aho batez hartu beharko dira.

3. Hitzarmenak jarraipenerako batzordearentzat berariaz jasotzen ez dituen gaietan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992ko Legearen 11. tituluko II. kapituluko kide anitzeko organoetarako araubidea bete beharko da.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA REN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.

1.- Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaleak behartuko nork bere aginpideei uko egin

precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio, especialmente en los supuestos de reajuste de anualidades y en los recogidos en la cláusula sexta.


d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el convenio.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta del representante de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones. Los quórum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3. En lo no previsto expresamente en el protocolo para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en el capítulo II del título 11 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

NOVENA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL CONVENIO.

1.- El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las



edo haien aldatzera, eta hitzarmenaren ondorio diren konpromisoengatiko erantzukizunak bakarrik hartuko dituzte beren gain.

2.- Hitzarmenak sinatzen denetik izango ditu ondorioak, eta ordutik behartuko ditu parte-hartzaleak, eta hura burutzeko jardunen kontratazioa behin betiko kitatu eta ordaindu arte iraungo du.

HAMARGARRENA.- HITZARMENA IRAUNGITZEA.

1.- Hitzarmena aurreko klausulan ezarritako indarraldia igaro delako edo hitzarmena hautsi egin delako iraungiko da.

2.- Aldeetako batek onartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du zorrotz betetzeko eskatzeko edo hitzarmena hausteko eskatzeko. Ebazpena Partzuergoak dagozkion betebeharrak ez betetzearen ondorio denean, Euskal Autonomia Erkidegoari dirulaguntza itzuli beharko zaio, abenduaren 17ko 698/1991 dekretuko bigarren tituluan araututako zenbatekoaren eta baldintzen arabera.

Kasu honetan aplikagarria da, halaber, Euskadiko Ogasun Orokorraren Printzipio

partes intervenientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervenientes desde su firma, y durará hasta la liquidación y pago de la contratación de la actuación para su ejecución.

DÉCIMA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO.

1.- El convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio. Cuando la resolución derive del incumplimiento por el Consorcio de sus obligaciones, procederá el reintegro de la subvención de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la cuantía y términos regulados en el título segundo del Decreto 698/1991, de 17 de diciembre.

Resulta igualmente de aplicación para este supuesto lo establecido en el Título



Arautzaleei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. Tituluan ezarritakoa ere.

Eta horren guztiaren ondorioz eta horrekin bat, aldeek idazpuruan adierazitako leku eta egunean sinatu dute hitzarmena bina aletan.

EL DIRECTOR GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA/ URAREN EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARI NAGUSIA



IÑIGO ANSOLA KAREAGA

VI del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado; en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

EL PRESIDENTE DEL CONSORCIO DE AGUAS DE RIOJA ALAVESA / ARABAKO ERRIOXAKO URKIDETZAKO PRESIDENTEA



JUAN JOSÉ GARCÍA BERRUECO


Arabako Errioxako
URKIDETZA
CONSORCIO DE AGUAS DE RIOJA ALAVESA
Avda. Diputación, 16 - 01300 LAQUEDAS (Álava)